

opusdei.org

Torreciudadeko Amabirjinaren Erakusketa

Torreciudadeko Amabirjinak
bisita bueltatzen dio Begoñako
Andra Mariari

2007 Mai 3

Bilboko Pasoen Museoan,
Torreciudadeko erromesaldien
nazioarteko zentroari buruzko ikus-
entzunezko erakusketa bat izan da
apirilaren bigarren hamabostaldi
honetan.

Aipatutako erakusketa honek, zentro honetako historia eta tradizioak agertzen ditu, 2007ko apirilaren 13tik maiatzaren 1era bitartean egon da ikusgai bilbotar Alde Zaharreko Pasoen Museoan. Inaugurazioa, apirilaren 13ko eguerdiko 12etan izan zen beronen buru izanik On Ricardo Blázquez, Bilboko Gotzaia.

Inaugurazio ekitaldi honetan pertsona ugari bildu ziren. Gotzainarekin batera, Begoñako Basilikaren Erretorea, Torreciudadeko Erretorea, Bilboko Udaletxeko zinegotziak, Penitentziazko kofradien buruzagia, etab. Bitxikeri modura, esan daiteke ere egun horretan Bilboko Gotzainak urteak betetzen zituela. Hau dela eta, bere sarrerako hitzaldia eman zuenean, “sekretua” izkutatua zeukatenak zoriontzeko aukera izan zuten.

Torre-ciudadeko Santutegia 1975ean inauguratu zen, San Josemariak bultzatuta. Umea izanik eta gaixo egonik bere amak eraman zuen aintzinako santutegira. Amabirjina zen bere azken itxaropena eta horregatik joan zen bere semearen osasuna eskatzera. Eta hala gertatu ere. Bidaia bukatzerakoan hil zorian zegoen haur txikia sendatu egin zen. Harrez geroztik, eta nolabait mesede hori eskertzeko, San Josemariak egitasmo hau buruan izan zuen 1975ean burutu arte.

Erakusketa hau, Bizkaian dauden Torre-ciudadeko Ordezkariek bultzatu izan dute, Bilbo Hiriko Penitentziazko Kofradien Anaidiarekin laguntzarekin. Haren helburua da, Torre-ciudadeko Birjinaganako debozioari buruzko informazioa ematea; izan ere, Aragoi herrialdean bizi izan da debozio hori XI. mendetik hona, Mariaren

Ibilbidean El Pilar eta Lourdes
bitarteko puntua izanik.

Ez da hau lehen aldia, Bilbok eta
Torreциudadek elkar topo egiten
dutena. 2000. urtean, bizkaitar ehun
bat erromes bidaiatu ziren
Torreциudadera Begoñako Amaren
kopia bat eramanez. Horretara,
Mariaren inguruetan finkatua den
tradizio bat jarraitu zuten, Ama
Birjinaren izen ezberdinak
kontaktuan jartzearena alegia.
Orduan, Telmo Zarrak eman zion
Torreциudadeko erretoreari
Begoñako Amaren kopia. Ordutik
hona, Begoñako Amatxoren irudia,
Torreциudadeko erromesaldien
zentroko Mariaren Izenen galerian
dago ikusgai.

Beraz, esan daiteke aurten
Torreциudadeko Amabirjinak
Begoñako Andra Mariari bisita
buelatu egin diola Bilbora etorritz.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/
torre-ciudadeko-amabir-jinaren-
erakusketa/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/torre-ciudadeko-amabir-jinaren-erakusketa/) (2025 Abu 14)